

## MIKRO-IPUIN LEHIAKETA 2021-2022: ARAUAK

### 1. PARTE HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan Nafarroa Garaiko A (edo B) eta D eredueta Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek eta Nafarroa Behereko, Zuberoako eta Lapurdiko eskoletako eta kolegioetako ikasleek har dezakete parte.

### 2. LANAK

Parte-hartzaile bakoitzak idazlan bat aurkeztu ahalko du, gehienez **100** hitzekoa. Ipuinak originala izan behar du, argitaratu gabea eta beste inongo lehiaketara aurkeztu gabea.

### 3. KATEGORIAK

Lehiaketa sei kategoriatan antolatu da: D ereduko Lehen Hezkuntza, A (edo B) ereduko Lehen Hezkuntza, Iparraldeko Lehen Maila (ikastolak eta eskolak), D ereduko Bigarren Hezkuntza, A (edo B) ereduko Bigarren Hezkuntza eta Iparraldeko Bigarren Maila (kolegioak).

### 4. LANAK ENTREGATZEKO BIDEAK

Irakasleak edo arduradunak talde bakoitzaren lanak bildu eta **2022ko urtarrilaren 31** bitarte Euskokultur Fundazioari helaraziko dizkio. Horretarako bi bide daude:

1. AUKERA: Posta elektronikoz (mikroipuinak@euskokultur.eus), mezu bakar batean erantsiz:
  - Alde batetik, lanak: ahal delarik PDF formatuan, fitxategi bakar batean, eta orrialde bakoitzeko bat, baina beti oinarri zurian, ipuinaren izenburua eta goitizena agertzen direla, egileen datu pertsonalik adierazi gabe.
  - Eta bestetik, aparteko eranskin batean: parte hartzaileen datuen fitxa beteta ([www.euskokultur.eus](http://www.euskokultur.eus) webgunean eskuragarri). Eskatzen diren datu guztiak jarri behar dira.
2. AUKERA: Postaz igorri edo egoitzan entregatu, gutun-azal handi baten barruan sartuz:
  - Alde batetik, lanak, orrialde bakoitzeko bat. Eskuz idatziak, fotokopiatuak edo mekanografiatuak izan daitezke, baina ahal delarik paper zurian. Ipuinaren izenburua eta goitizena agertu beharko dira. Orri hauetan ezin da egileen datu pertsonalik agertu.
  - Eta bestetik: aparteko gutun-azal txiki batean, parte hartzaileen datuen fitxa beteta ([www.euskokultur.eus](http://www.euskokultur.eus) webgunean eskuragarri). Eskatzen diren datu guztiak jarri behar dira.

### 5. HAUTAKETA-PROZESUA

Epaimahaia Eduardo Aldasoro, Izaskun Etxeberria, Ines Castiella, Itziar Diez de Ultzurrun, Jon Abril eta Fertxu Izquierdok osatuko dute, inorentzat uneko eragozpenik sortu izan ezik. Jasotako lan guztiak aztertu ondoren, epaimahai horrek aukeraketa egingen du. Deliberoa 2022ko martxoan ezagutaraziko da, Euskokulturren webgunean eta hedabideen bitartez. Deliberoari helegiterik ezin jarri izanen zaio.

## 6. SARIAK

Kategoria bakoitzeko irabazle bat izanen da, eta Pamiela Argitaletxearen liburu sorta jasoko du opari. Horrezaz gain, epaimahaiak egoki deritzen ohorezko aipamenak egin ditzake. Halere, sariak eman gabe gera litezke, baldin eta -epaimahaiaren irizpidearen arabera- idazlanek behar bezalako merezimendurik izanen ez balute. Bestalde, epaimahaiak proposatuko du zein ikastetxetan egin daitekeen ikasle, irakasle eta artista gonbidatuarekin ospatu ohi diren sari banaketaren ekitaldiak. Edizio honetako gonbidatu berezia **Joxe Mari Agirretxe "Porrotx"** *Irrien Laguna* izango da.

## 7. ZABALKUNDEA

Aurkezturiko idazlanak Euskokulturren eta Pamielaren esku geratuko dira. Fundazioak bere webgunean edo beste komunikabide edo euskarritan argitaratu ahal izanen ditu, egilea eta eskola aipatuz betiere. Era berean, Euskokulturrek eta Pamielak lehiaketako sari emate ekitaldietan eginiko argazki eta bideoak erabili ahal izanen dituzte, gurasoen idatzizko baimena jaso izanik betiere.

## 8. OHARRAK

Araudi honetan aurreikusi gabeko edozein arazo ebazteko eskumena epaimahaiak izanen du. Aurkezturiko obren kopurua espero baino handiago izatera, atzerapena izan liteke, epaimahaiak ipuinak irakurtzeko eta aztertzeko aski denbora eduki dezan. Lehiaketa honetan parte-hartzeak arau hauek eta epaimahaiaren erabakiak erabat onartzea dakar berarekin.

## 9. HARREMANAK

Lanak aurkezteko, informazio gehiago eskuratzeko edota zalantzak argitzeko, Euskokultur Fundazioarekin harremanetan jartzeko bideak honakoak dira:

EUSKOKULTUR MINTEGIA  
Baratzeetako zeharkalea 2, behea.  
31014 Iruñea.

Tfnoak: 00 34 948 14 18 12  
00 34 660 352 352

E-posta: mikroipuinak@euskokultur.eus